



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu



TAXIEN MAHAIA

2022ko urriak 25

GAI-ZERRENDA:

1. Ongietorria
2. Informazioa hurrengo gaiei buruz:
 - Bidaiarien alokairuko ibilgailuen nahierako zerbitzu publikoari buruzko Ordenantzaren aldaketaren berri ematea.
 - Elkarrekin lokala alokatzea
 - Taxi-gidarien OHZ
 - Taxiei buruzko prestakuntza
 - Getxo udalerriko taxiarentako ibilgailu elektriko berriak erosteko laguntzak, 2022an udalerriko taxi elektrikoaren kopurua areagotze aldera
 - Taxiaren aplikazioa
 - Telletxeko aparkaleku-plazak
3. Galderak, iradokizunak eta beste batzuk.

BERTARATUAK: % 67

DEITUTAKOAK		BERTARATUAK	BERTARATU GABEAK	
			Arrazoi emandakoa	Arrazoi irik eman gabe
Taxi sektorea	José Ignacio López (BizkaiaTaxi presidentea)	X		
	Sergio Benito	X		
	Getxo Taxi Tour-eko ordezkaria		X	
Getxoko Udala – Ekonomia Sustapeneko Arloa	Idoia Belasko	X		
	Mercedes Montalban	X		
	Aitor Zorrilla	X		

EDUKIAK:

1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.



Idoia Belascok, Ekonomia Sustapeneko Arloko teknikariak, bilerara bertaratu direnak agurtu eta aurkeztu ditu; ondoren, gai-zerrendari heldu dio.

2. Informazioa hurrengo gaietarako:

a) **Bidaiarien alokairuko ibilgailuen nahierako zerbitzu publikoari buruzko Ordenantzaren aldaketaren berri ematea**

Jakinarazi du badagoela ordenantzaren lehenengo zirriborro teknikoa, gai horretan eskumena duen arloa berrikusten ari dela eta aurreikusten dutela azaroan izatea eskuragarri lehenengo zirriborroa.

José Ignacio Lópezek, BizkaiTaxi elkarteko presidentek, nabarmendu du beharrezkoa dela taxiaren barruan publizitate-espazio bat gaitzeko aukera jasotzea ordenantzan.

b) **Elkartek lokalak alokatzea**

Idoia Belascok adierazi du ez dela alokairua, 2019an egindako administrazio-emakida baizik, eta, hortaz, legez kanpoko egoeran dagoela emakida; hori dela eta, Ondare Atalak egoera erregularizatzeko zer egin behar den adierazteko zain dago Ekonomia Sustapeneko Arloa.

c) **Taxi-gidarien OHZ**

Jose Ignaciok galdera hau egin du: “46 lizentzia baldin badaude eta 46 OHZ kobratzen badira, zergatik daude 32 leku taxi-gidariarentzat? Zer gertatuko da Kale Nagusiko aparkalekuekin obrak amaitzen direnean?”. Idoia Belascok jakinarazi du eskumena duen arloari helaraziko zaiola kontsulta.

d) **Taxiei buruzko prestakuntza**

Lizentzia daukaten pertsona guztiak joan dira prestakuntza-saioretara. Zati teorikoa egin da, eta praktikoa egitea falta da. “Zati teorikora hamaika edo hamabi pertsonako taldeak joan dira, baina zati praktikoa talde txikiagoekin egingo dugu lan”, aurreratu du Mercedes Montalbanek, Ekonomia Sustapeneko Arloko teknikariak, eta adierazi du taxi-gidariei deituko zaiela laster, saio praktikora joan daitezten. Horrez gain, jakinarazi du plakak emango direla laster eta prentsa-ohar edo bideo-albiste baten bidez emango dela horren berri.

e) **Getxo udalerriko taxiarentzako ibilgailu elektriko berriak erosteko laguntzak, 2022an udalerriko taxi elektrikoaren kopurua areagotze aldera**

Taxi-gidarien elkarteko Sergio Benitok adierazi du espero dutela urtea amaitu aurretik taxi-gidari kide gehiagok eskatzea laguntza. Hala ere, kide batzuk eszeptiko agertu dira. “Gobernuak onetsitako elektrizitateko zerga berrien ondorioz eta argiaren prezio-igoera dela-eta, ibilgailu elektrikoak izateagatik onurak nabarmen murrizten hasi dira”, kexatu da Jose Ignacio López. Hala eta guztiz ere, aitortu du errentagarria dela oraindik ere, horrek dakarren erregaiaren aurrezkiagatik eta udalaren Moves planaren laguntzengatik.

f) **Taxien aplikazioa**



Uztailaren 19an egin zen taxien azken mahaian aipatu zen bezala, web-posizionamendua hobetzea eta aplikazioa zabaltzea sektorearen lehentasunen artean daude. "Turistak beste aplikazio batzuk erabiltzera ohituta daude, esate baterako nazioartekoa den Uber. Ez du bereizketarik egiten udalerrri desberdinen arteko taxien artean, eta bakoitzak aplikazio desberdina dauka" kexatu da Jose Ignacio, webgunearen posizionamendua eta aplikazioa hobetzeko beharra agerraraziz.

"Operadore automatikoak eta aplikazioak lanaren % 45 sortzen dute", adierazi du Jose Ignaciok. Hortaz, aplikazioa asko hobetu daitekeela uste dute.

Sergio Benitok proposatu du publizitatea jartzea *GetxoBerrin*, herritarren artean aplikazioa ezagutzera emateko. Alabaina, Jose Ignacio López sinesgogor agertu da publizitate-mota horri dagokionez; izan ere, uste du *Getxoberriren* bidez lortzen diren zerbitzu-hartzaileak ez direla lortu nahi dituztenak.

Horrez gain, Sergio Benitok aztertu du sare sozialen bidez elkartearen presentzia digitala hobetzeko aukera, horien bidez ere webgunea ikusarazte aldera. Horrez gain, proposatu du taxien publizitatea jartzea hainbat eraikin publikotan, aplikazioa deskargatzeko QR kode baten bidez.

g) Telletzeko aparkaleku-plazak

Jose Ignaciok azaldu duenez, Telletzeko taxi-geltokian gaizki aparkatzeagatik zehatutako taxi-gidariak errekurtsioa aurkeztu dute isunaren aurka. Idoia Belaskok esan du oraingoz ez duela horren gaineko ebazpenik, dagokion arloari eskaria errepikatu dion arren.

3. Galderak, iradokizunak eta beste batzuk

Mercedes Montalbanek jakinarazi du aurten, ohiko zerbitzuetan (ibilaldiak Bilbora edo Getxo udalerrriaren barruan) arreta eman zaien gurutzaontzietako bidaiariei dagokienez taxien elkarteak eman dituen datuen arabera, 13.000 euro inguru fakturatu direla. "Zoragarria izango litzateke gurutzaontzietako bidaiariei taxi-zerbitzua eskaini ahal izatea udalerriko jatetxeren batera jaten eramateko", adierazi du Jose Ignaciok. Alabaina, Mercedes Montalbanek adierazi du gurutzaontzietako bidaiariak itsasontzian egon ohi direla jatorduetan eta, beraz, ez dela zerbitzu erakargarria gurutzaontzietako bidaiarientzat.

TAXIEN MAHAIAREN ERABAKIAK (2022-10-25):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
2. Ordenantza berriaren zirriborroa ematea taxien elkarteari.	Zerbitzuko teknikariak	Eskuragarri dagoenean
3. Taxien elkartearen lokalaren emakidaren kopia bidaltzea.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
4. Ondare Atalarekin kontsultatzea nola	Zerbitzuko	Bileratik aurrera



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

erregularizatu daitekeen taxien elkartearen lokalaren emakida.	teknikariak	
5. Taxi-gidariak deitzea prestakuntzaren zati praktikora.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
6. 46 lizentzia baldin badaude eta 46 OHZ kobratzen badira, zergatik daude 32 leku taxi-gidariarentzat?	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
7. Zer gertatuko da Kale Nagusiko aparkalekuekin obrak amaitzen direnean?	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
8. Ikerri bideratzea, taxien aplikazioaren gaineko aholkularitza eman dezan.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
9. Bilboko taxi-gidarien sustatzeko moduari buruz galdetza (Udal Eraikinak, Osakidetza...)	Sektorea bera	Bileratik aurrera